

**ERRONKARIBARKO BATZORDE NAGUSIAK
2025EKO AGORRILAREN 24AN EGINDAKO
OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

2025eko agorrilaren 24ko 12:00etan, Urzainkiko udaletxean, Asier Gil Artuch idazkaria bertan izanik eta Tomas Urzainqui Mina Urzainkiko Aiza Bulguko alkatea Batzordeburu izanik, bera eta Juan Carlos Urzainqui Salvoch Urzainkiko ordezkari gisa agertuz, Erronkaribarko Batzorde Nagusiak Ohiko Osoko Bilkura egin du.

Gainerako herrien izenean ordezkari hauek bertaratu dira:

UZTARROZE: Estefania Labairu Marco

IZABA: Carlos Anaut Abadia eta Pedro Pilart Martin

ERRONKARI: Amparo Gale Viñuales eta Jesus Cruchaga Mainz.

GARDE: Erika Ergueta Fernandez eta JoseJavier Echandi Sarries

BIDANKOZE: Tomas Pasquel Ayechu

BURGI: Iñaki Lacasia Mendizabal

Gai-zerrenda aztertu aurretik, Jose Miguel Iturri Busto mendi-ingeniariari eman zaio hitza, batzordekideei baso-ziurtagiriei buruzko informazioa eman diezaien, uztailaren 14an Izaban egindako ohiko osoko bilkuran erabakitakoarekin bat.

**o. BASO-ZIURTAGIRIEI BURUZKO
AZALPENA**

Batzordekideei dokumentu bat eman eta azaldu du FSC eta PEFC munduko bi ziurtagiri nagusiak direla eta ziurtagiri bakoitzak helburu desberdinak dituela, eta bakoitzak ziurtatuta duen hektarea kopuruaren berri eman du.

FSC 1993an sortu zen, batez ere tropikoko baso-soiltzeari erantzuteko, kontsumitzaileak zurak gizarte- eta ingurumen-berme jakin batzuk betetzen zituelako bermea izan zezan. Ziurtagiri horren indargunea da, hain zuzen ere, berme horiek betetzen direla ziurtatzeko ahalegina, oinarritzko hamar printzipiotan oinarrituta. Adibide gisa, aipatu du Errusiako baso masak deskatalogatu direla Errusia-Ukraina gerraren

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE LA
JUNTA GENERAL DEL VALLE DE RONCAL
CELEBRADA EL DÍA 24 DE AGOSTO DE 2025**

En la villa de Urzainqui, en el Ayuntamiento, siendo las 12:00 horas del día 24 de AGOSTO de dos mil veinticinco, con asistencia del Secretario D. Asier Gil Artuch y bajo la Presidencia del alcalde de la Villa de Urzainqui D. Tomás Urzainqui Mina, que concurre junto con D. Juan Carlos Urzainqui Salvoch se reúne la Junta General del Valle de Roncal, en sesión ordinaria, concurriendo por las demás villas la representación siguiente:

UZTARROZ: Estefania Labairu Marco

ISABA: Carlos Anaut Abadia, Pedro Pilart Martín

RONCAL: Amparo Viñuales Gale, Jesús Cruchaga Mainz

GARDE: Erika Ergueta Fernandez, José Javier Echandi Sarriés

VIDANGOZ: Tomás Pasquel Ayechu

BURGI: Iñaki Lacasia Mendizabal

De forma previa y antes de tratar los asuntos del orden del día se le da la palabra a D. Jose Miguel Iturri Busto para que informe a los representantes, tal y como se acordó en la sesión ordinaria celebrada el 14 de julio en Isaba, sobre las certificaciones forestales

**o- EXPLICACIÓN SOBRE
CERTIFICACIONES FORESTALES.**

Se reparte un impreso a los representantes y se explica que, a nivel mundial, las dos grandes certificaciones forestales son FSC y PEFC. En primer lugar, se indica cuántas hectáreas tiene certificada cada una y se aclara que cada certificación tiene una finalidad diferente.

Se explica que FSC se creó en 1993, principalmente como respuesta a la deforestación tropical, para que el consumidor tuviera la garantía de que la madera cumplía con ciertas garantías sociales y medioambientales. Se destaca que el punto fuerte de esta certificación es precisamente el énfasis que pone en asegurar el cumplimiento de estas garantías, apoyándose en diez principios básicos. Como ejemplo, se menciona que masas forestales de Rusia han sido descatalogadas a raíz de la guerra

ondorioz.

PEFC geroago sortu zen. Hiru baremotan oinarritzen da eta ez da horren asmo handikoa gizarte- eta ingurumen-planteamenduei dagokienez. Aitzitik, alderdi teknikoak askoz garatuago ditu eta sistema praktikoagoa da, gai etikoetan hainbeste sakondu gabe.

Bi kasuetan, zaintza- eta kalitate-kontrolko kate bat dago, eta norbaitek araudia betetzen ari dela fiskalizatzen du. Aipatu du FSC zorrotzagoa dela kontrol horretan; ziurtapena erakunde fiskalizatzaileen esku geratzen da, eta erakunde horiek atzerritarrak izatea lehenesten da. FSC garestiagoa da, kontroletan zorrotzagoa delako.

Gaur egun, baso-ziurtagirien bidez, abantaila lortzea baino gehiago lehiarako desabantaila saihestea bilatzen da, eta ororen gainetik merkataritzarekin loturiko kontu bat da. Iturriren iritziz, ziurtagiri bat egonda, ez da presarik izan behar hori aldatzeko, eta, aldatzekotan, garrantzitsua litzateke Nafarroako Gobernuarekin eta beste udal batzuekin batera egitea.

Jose Miguel Iturri Bustori eskerrak eman zaizkio emandako azalpenengatik.

Izabaren ustez, itxaron egin behar da, mendi-ingeniariaren iritziarekin bat. Gainerako ordezkariak ere bat datoz. Garde dio, ados egonda ere, informazio gehiago bilatuko lukeela.

1. PANIFIKATUETAN LIBREKI LARRATZEKO DATA EZARTZEA

Ohiko gaiari dagokionez, hau da, panifikatuetan libreki larratzeko data ezartzea, ordezkarien argibideak eta azalpenak entzun ondoren, panifikatuak bihar goizaldean libre uztea erabaki da, Mankomunitatearen Ordenantzetan ezarritakoarekin eta gaiari buruz hartutako erabakiekin bat eta ohiturari jarraikiz.

ruso-ucraniana.

En cuanto a PEFC, se señala que se creó con posterioridad, que se basa en tres baremos y que no es tan ambiciosa en sus planteamientos sociales y ambientales. En cambio los aspectos técnicos están mucho más desarrollados, siendo un sistema más práctico que no profundiza tanto en cuestiones éticas.

En ambos casos existe una cadena de custodia y control de calidad, debiendo haber alguien que fiscalice que se está cumpliendo con la normativa. Se señala que FSC es más exigente en este control, quedando la certificación más en manos de los organismos fiscalizadores, que además suelen priorizar que estos sean extranjeros. También se indica que FSC resulta más cara debido a que es más exhaustiva en los controles.

Se concluye señalando que hoy en día, mediante las certificaciones forestales, se busca principalmente evitar una desventaja competitiva más que conseguir una ventaja, siendo algo más de carácter comercial que otra cosa. Se opina que, existiendo ya una certificación, no hay prisa en cambiar y que sería importante, en caso de hacerlo, ir de la mano del Gobierno de Navarra y de otros ayuntamientos.

Se agradece la información trasladada por D. Jose Miguel Iturri Busto.

Isaba opina que hay que esperar, de acuerdo con la opinión de D. Jose Miguel Iturri Busto. El resto de representantes están de acuerdo. Garde apunta que aun estando de acuerdo buscaría más información.

1- FIJAR FECHA PARA LA LIBRE PASTURACIÓN DE LOS PANIFICADOS.

Sobre el asunto ordinario referido a fijar fecha para la libre pasturación o Suelta de los Panificados a la vista de las informaciones y manifestaciones de las distintas representaciones y en conformidad con lo estipulado en las Ordenanzas de la Mancomunidad y acuerdos adoptados sobre el particular, se acuerda dar la Suelta de los

2. BATZORDEBURUAREN EBAZPENAK

34/2025 Ebazpena, agorrilaren 11koa

34/2025 Ebazpenaren berri eman da, Erronkaribarko Haur Eskolan haur hezitzaile gisa ordezkapenak egiteko zerrenda bat eratzeke prozesuan onartutakoen behin-behineko zerrenda onesten duena.

35/2025 Ebazpena, 2025eko agorrilaren 11koa

35/2025 Ebazpenaren berri eman da, Erronkaribarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak egindako txosten soziosanitarioa ikusita, Ana Maria Zabalza Fayanas Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua ematen diona.

3. OIHAN-ENKANTEEN AGIRIETAN CNMC-REN ARAUAK ETA UZTAILAREN 3KO 15/2007 LEGEA SARTZEKO PROPOSAMENA

Urzainkiko ordezkariak joan den asteartean, hilaren 19an, egindako Ordenantzen eta Administrazio Zerbitzuen batzordean aurkeztutako idazkia irakurri du. Proposatu du administrazio-agirietan legearen 62. eta 63. artikulua eta KP-ren 207. artikulua sartzea. Proposamena kontuan hartuko da hurrengo agirietan sartzeko. Beste alde batetik, enkanteen publizitatea egitearen garrantzia azpimarratu du, lehia bermatzeko eta kontratazioetan jardunbide txarrak saihesteko.

Uztarrozeko ordezkari Estefania Labairu Marcok adierazi du gai hori jada aztertu eta adostu zela batzordean, eta proposatu du erabakia hartzea, eztabaida gehiagotan sartu gabe.

Idazkariari galdetu zaio oihan-enkanteen baldintza ekonomiko-administratiboen agirietan Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen paragrafoa sartzeari buruz, lizitatzailen sarbide eta lehia askatasuna bermatzeko. Idazkariak erantzun du ez dagoela inongo eragozpenik hurrengo agirietan hitzez hitz jartzeko, baina aipatu du aurtengo enkanteak aurreko osoko bilkuran onetsi eta dagoeneko Nafarroako kontratazio

Panificados mañana al amanecer, según costumbre.

2- RESOLUCIONES DE PRESIDENCIA.

Resolucion 34/2025 de 11 de agosto

Se da cuenta de la resolución 34/2025 por la que se aprueba el listado provisional de admitidos en proceso para la constitución de una relación para realizar sustituciones en la Escuela Infantil del Valle de Roncal como Educador/a Infantil.

Resolución 35/2025 de 11 de agosto

Se da cuenta de la resolución 35/2025 por la que, visto el informe socio-sanitario elaborado por el Servicio Social de Base del Valle de Roncal se concede el Servicio de Atención Domiciliaria a Dña. Ana María Zabalza Fayanas.

3- PROPUESTA PARA INCLUIR EN LOS PLIEGOS DE LAS SUBASTAS DE LOS LOTES FORESTALES NORMAS DE LA CNMC Y LEY 15/2007 DE 3 DE JULIO.

El representante de Urzainqui da lectura texto presentado en la comisión de ordenanzas y servicios administrativos celebrada el pasado martes 19 de agosto. Se propone por su parte que se incluyan arts 62 y 63 de la ley y CP art.207 en los pliegos administrativos. Se tendrá en cuenta para incluirlo para los próximos pliegos. Hace además hincapié en la importancia en la publicidad de las subastas como forma de garantizar la competencia y evitar malas prácticas en las contrataciones.

La representante de Uztarroz, Dña Estefania Labairu Marco, dice que este punto ya fue tratado y acordado en la comisión y propone que se adopte acuerdo en el mismo sentido sin entrar en mayores debates.

Por lo tanto se plantea al Secretario la conveniencia de incluir en los pliegos de condiciones económico-administrativas de las subastas forestales el párrafo previsto en la Ley 15/2007, de 3 de julio, de Defensa de la Competencia, con el fin de garantizar la libertad de acceso y concurrencia de los licitadores, respondiendo este que no hay inconveniente en

atarian argitaratu direla.

Proposatu da jendaurreko enkanteei ahalik eta publizitate handiena ematea, hala nola Nafarroako eta Espainiako kontratazio atarietan, udalen iragarki-oholetan eta WhatsApp taldeetan, Batzordearen Aldizkarian eta Nafarroako egunkarietan, betiere horrek kostu ekonomikorik edo lan karga gehigarriarik ez badakar. Idazkariak argitu du enkante eta lizitazio guztien publizitatea kontratu publikoei buruzko 2/2018 Foru Legeak ezartzen duenaren arabera egiten dela, baina ez dagoela arazorik horiek bitarteko gehiagoren bidez zabaltzeko.

4. HIRU BEHIEN ZERGA UNESCOREN MUNDUKO ONDAREAREN ZERRENDAN SARTZEKO AURREAKORDIOAK

Agorrilaren 19ko Ordenantzen eta Administrazio Zerbitzuen batzordean, PAX AVANT Munduko Ondarearen Zerrendan sartzeko ekimenari buruzko idazkia aztertu zen. Bertan, haren aparteko balio unibertsala nabarmentzen da, indarrean dagoen munduko bake-itunik zaharrena (1375) baita, Pirinioetako zibilizazioaren testigantza bakarra eta mendeetan bakea bilatu eta lortu izanaren adibidea. Mankomunitateak proposamena prestatzen hastea erabaki zen, ondasunaren kokapena eta ezaugarriak finkatuz eta 30 eguneko epea jarritzeko eta eragileekin lantalde bat osatzeko, biztanleen parte-hartzearekin. Halaber, erabaki zen ekainaren 26an eta uztailaren 14an gaiari buruz hartutako erabakien berri ematea ondoko erakundeei: Erronkaribar, Baretois, Oloron, Anso eta Artiedako Udalei, Bardeako Batzar Nagusiari, Nafarroako Kultura kontseilariari eta Kultura Ministerioari. Batzordean inskripzioaren abantailak azpimarratu ziren, hala nola nazioarteko aitortpena, ondarearen babes eta kontserbazio handiagoa, nazioarteko lankidetzaren bultzatzea eta diru-funtsak lortzeko eta kudeaketa jardunbide egokiak zabaltzeko aukera.

PAX AVANT Munduko Ondarearen Zerrendan inskribatzeko ekimenari buruzko testua irakurrita, Urzainkiko ordezkariak

reproducir textualmente lo que se plantea en futuros pliegos pero que los actuales ya fueron aprobados en la anterior sesión y que ya han sido publicados en el portal de contratación de Navarra.

Además se propone que se dé la máxima difusión posible a las subastas públicas mediante portales de contratación de Navarra y España, tablones municipales, grupos de WhatsApp de los 7 ayuntamientos, Boletín del Valle y periódicos de Navarra, siempre que ello no suponga coste económico ni carga de trabajo adicional. Se aclara por el Secretario que la publicidad de todas las subastas y licitaciones se hacen de acuerdo a lo que marca la ley foral 2/2018 de contratos públicos, pero que no hay mayor problema en difundirlas por más medios.

4- ACUERDOS PREPARATORIOS PARA INCLUIR EL TRIBUTO DE LAS TRES VACAS EN LA LISTA DE PATRIMONIO MUNDIAL DE LA UNESCO.

En la Comisión de Ordenanzas y Servicios Administrativos del pasado 19 de agosto se trató el texto relativo a la iniciativa de inscripción del PAX AVANT en la Lista del Patrimonio mundial, en el que se destaca su valor universal excepcional como el tratado de paz vigente más antiguo del mundo (1375), testimonio único de la civilización pirenaica y ejemplo de la búsqueda y mantenimiento de la paz a lo largo de los siglos. Se acordó iniciar la preparación de la propuesta por parte de la Mancomunidad, fijando la localización y atributos del bien, constituyendo en el plazo de 30 días un equipo de trabajo con expertos y actores clave y asegurando la participación de la población local. Asimismo, se acordó dar traslado de los acuerdos adoptados el 26 de junio y 14 de julio relativos a este asunto a los ayuntamientos de los Valles de Roncal y Baretois, Oloron, Anso, Artieda, a la Junta General de las Bardenas, a la Consejera de Cultura de Navarra y al Ministerio de Cultura. Se subrayaron las ventajas de la inscripción, como el reconocimiento internacional, la mayor protección y conservación del patrimonio, el impulso a la cooperación internacional y la posibilidad de movilizar fondos y difundir buenas prácticas de gestión.

proposatu du adituen batzordea eratzea, hura izapidetzeko, eta irailean bilera bat egitea.

Gardek adierazi du lehenik eta behin erabakiaren berri eman beharko litzaiekeela inplikaturako aldeei, eta, ondoren, adituei deitu eta lanari ekin. Urzainkik erantzun du bi gauzak aldi berean egin daitezkeela. Erronkarik gogorarazi du batzordeak jadanik erabaki zuela lantalde hori sortzea.

Izabako ordezkariak proposatu du, lehen urrats gisa, Nafarroako Gobernuarekin bilera bat egitea, egin beharreko urratsak azal ditzaten, izan ere, hautagaitza Autonomia Erkidegoak aurkeztu behar du.

Urzainkik nabarmendu du Konbentzioak tokiko komunitateen parte-hartzea azpimarratzen duela, eta proposatu du Nafarroako Gobernuak Kultura Departamentuari bilera eskatzea eta aldi berean batzordea osatzea. Izabak berriz dio lehenik eta behin Nafarroako Gobernuarekin bilera egin behar dela, eta, erantzunaren arabera, lanari ekin, Batzordetik kanpoko pertsonak ez konprometitzeko jarraitutasunik gabe gera daitezkeen zereginetan. Uztarroze, Bidankoze, Garde, Erronkari eta Burgi ados daude Izabako ordezkariaren proposamenarekin.

5. BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, ERRONKARIBARKO MANKOMUNITATEAREN ARAUBIDERAKO ORDENANTZEN AURKA

Ordezkariei banatu zaie Urzainkiko Udalak jarritako berraztertzeko errekurtsoa, 4 pertsonaren atxikimendua ere baduena. Gainerako udaletako ordezkariak uste dute errekurtsok jasotakoa dagoeneko hainbat bileratan aztertu dela ordenantzak onetsi aurretik. Hortaz, gehiengoz erabaki da errekurtsoa ezestea, Uztarroze, Izaba, Erronkari, Garde, Bidankoze eta Burgiren aldeko botoekin eta Urzainkiren aurkako botoarekin.

6. BATZORDEBURUAREN OHARRAK

Leído el texto relativo a la iniciativa de inscripción del PAX AVANT en la Lista del Patrimonio Mundial, la representación de Urzainqui propone que se constituya la comisión de expertos para su tramitación y plantea la posibilidad de una reunión en septiembre.

Garde manifiesta que lo primero sería trasladar el acuerdo a las partes implicadas y posteriormente convocar a los expertos y comenzar el trabajo, a lo que Urzainqui responde que ambas cosas pueden hacerse de forma simultánea. Roncal recuerda que la Comisión ya acordó la creación de dicho equipo de trabajo.

La representación de Isaba propone que, como primer paso, se mantenga una reunión con el Gobierno de Navarra dado que la candidatura debe ser presentada por la Comunidad Autónoma, a fin de que indiquen los pasos a seguir.

Urzainqui insiste en que la Convención pone énfasis en la participación de las comunidades locales y propone solicitar reunión con el Departamento de Cultura del Gobierno de Navarra e ir formando simultáneamente la comisión. Isaba reitera que debe celebrarse primero la reunión con el Gobierno de Navarra y, en función de la respuesta, comenzar el trabajo, evitando comprometer a personas ajenas a la Junta del Valle en tareas que puedan quedar sin continuidad. Uztároz, Vidángoz, Garde, Roncal y Burgui manifiestan su acuerdo con la postura de Isaba.

5- RESOLUCIÓN RECURSO REPOSICIÓN CONTRA LAS ORDENANZAS PARA EL RÉGIMEN DE LA MANCOMUNIDAD DEL VALLE DE RONCAL.

Se ha puesto a disposición de las representaciones de las Villas el recurso de reposición interpuesto por el Ayuntamiento de Urzainqui al que se han adherido 4 personas más. Las representaciones de los otros Ayuntamientos entienden que lo que se reclama en el recurso ya son asuntos tratados en numerosas reuniones antes de la aprobación de las ordenanzas por lo que se acuerda desestimarlos por mayoría, con el voto a favor de la desestimación de Uztarroze,

ETA BATZORDEEI BURUZKO INFORMAZIOA

Batzordeburuak jakinarazi du setemeraren 2an, 10:15ean, bilera eginen dela Erronkaribarko Etxea birgaitzeko proiektua idatzi duen taldearekin, proiektuaz arduratzen diren ingeniariarekin eta Erronkariko eskola zaharreko galdara instalatzeaz arduratzen den ingeniariarekin eta enpresarekin, galdara horrek Erronkaribarko Etxeari zerbitzua emateko aukera aztertzeko, "hemen berri bat jarri behar ez izateko, eta, horrela, espazioa eta dirua aurrezteko".

Bestalde, jakinarazi du setemeraren 1an, 10:15ean, bilera eginen dela mahai gainean zer proiektu eta gai dauden aztertzeko, legealdiko azken bi urteetako lehentasunak planifikatzeko eta batzordeak berrantolatzeko.

Tomas Pasquel Ayechuk jakinarazi du larreen antolamendurako planaren gaia geldirik dagoela.

7. GALDE-ESKEAK

Gardek, Erronkaribarko Etxea birgaitzeko obren proiektua oraindik lizitatu gabe dagoenez, galdetu du zer gertatuko den aurrekontu-partida gauzatu ezean. Erantzun zaio ez dagoela arazorik eta, hori gertatuko balitz, beharrezko aurrekontu-aldaketak eginen liratekeela aurrekontuak behar bezala aplikatzeko.

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 14:00etan Batzordeburuak bilkura amaitu du, eta honako akta hau idatzi da.

Eta dagokion tokian jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin da, ontzat emana eta zigilua jarrita, eta ibarreko Udalei bidali zaie, iragarki-oholetan jar dezaten.

Erronkarin, 2025eko setemeraren 4an

Isaba, Roncal, Garde, Vidangoz y Burgui y el voto en contra de Urzainqui.

6- TRASLADO DE INFORMACIÓN DE PRESIDENCIA Y COMISIONES

Se informa por la presidenta que el próximo 2 de septiembre, a las 10:15 se celebrará reunión con el equipo redactor del proyecto de rehabilitación de la casa del valle, ingenieros encargados del proyecto de rehabilitación, ingeniero encargado de la instalación de la caldera de las escuelas viejas de Roncal y la empresa encargada de la instalación de dicha caldera para valorar la posibilidad de que esta caldera pueda dar servicio a la Casa del Valle, evitando tener que instalar una nueva aquí, ahorrándose así, espacio y dinero.

Se informa así mismo que se prevé realizar una sesión de trabajo este mes de septiembre para estudiar qué proyectos y asuntos hay encima de la mesa y planificar las prioridades estos dos años que quedan de legislatura, ordenándose, también, las comisiones.

Se Informa D. Tomás Pasquel Ayechu el tema del plan de ordenación de pastos está parado.

7- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Garde pregunta por la partida presupuestaria destinada a la rehabilitación de la Casa del Valle y plantea qué ocurrirá si no se ejecuta, dado que el proyecto de obras aún no ha sido licitado. Se responde que no existe problema y que, en su caso, se llevarán a cabo las modificaciones presupuestarias necesarias para garantizar la correcta aplicación de los presupuestos.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las catorce horas del día señalado al inicio, por el Sr. Presidente se levanta la sesión, redactándose la presente Acta.

Y para que conste donde proceda, se expide la presente certificación, Visada y Sellada, y se envía a cada uno de los Ayuntamientos del Valle, para su exposición en el Tablón de Anuncios, en Roncal a 4 de septiembre de dos mil

veinticinco.